

Nazionalismo subliminala(k) eta testuliburuak: alfabetatze nazional paraleloak Euskal Autonomia Erkidegoan

Jon Fernández-Iriondo

NOR Ikerketa Taldea, Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

Nazionalismo-ikerketen alorrean kokatutako ikerketa honek euskal eta espainiar nortasunen erreproduzio hutsal edo subliminala aztertzen du Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeek erabiltzen dituzten Gizarte Zientzietako testuliburuaren analisiaren bidez. Besteak beste Michael Billig-en nazionalismo hutsalaren tesiaz baliaturik, eduki-analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu dira hiru argitaletxetako testuliburuak konparatzeko. Aurkikuntzei dagokienez, testuliburuak islatzen dute EAEko hezkuntza-sistemako ikasleek alfabetatze nazional ezberdin eta paraleloak bizi dituztela: argitaletxe gehienek nazionalismo espainiarra banalizatzen dute; Ikaselkar argitaletxeak, berriz, modu nazionalistan —eta ez erregionalistan— erreproduzitzen du euskal nortasuna.

GAKO-HITZAK: Hezkuntza · Testuliburuak · Nazionalismoa · Nortasunak.

Subliminal nationalism(s) and textbooks: parallel national literacies in the Basque Autonomous Community.

This research, related to the field of Nationalism Studies, examines the banal or subliminal reproduction of Basque and Spanish identities in the third cycle of primary education through the analysis of Social Science textbooks used nowadays in schools located in the Basque Autonomous Community. Based, among others, on Michael Billig's thesis of banal nationalism, quantitative and qualitative content analysis have been used to compare textbooks from three publishing houses. Concerning the findings, textbooks reflect pupils' parallel national literacies: whereas most publishers banalise Spanish nationalism, Ikaselkar reproduces Basque identity in a nationalist —and not regionalist— fashion.

KEY WORDS: Education · Textbooks · Nationalism · Identities.

1. Sarrera¹

Nazio-selekzioen partidak ikustean, Eurovisioneko bozketaren emaitzen zain egotean, beste herrialde batzuei buruzko estereotipoez hitz egitean... eguneroko nahiz ezohiko egoeretan, naziotasuna —alegia, norberaren nazio-identitatea— modu naturalean azaleratu ohi da. Izan ere, ezarritako nazio-estatuetakoko populazioen iruditerian erabat naturalizatuta daude bai estatuari dagokion identitatea, bai mundua nazioka zatikatzen duen mundu-ikuskerak (Billig, 1995). Areago, hain dago naturalizatuta naziotasuna gizarte garaikideetan, ezen, Ernest Gellner-ek (2009) esan zuen bezalaxe, nazionalitate bat izatea sudurra eta belarriak izatea bezain beharrezkoa den. Alabaina, gizakiok ez gara jaiotzen alemaniarrek, kolonbiarrak, txinatarrak edo dena delakoa izanda, nazio-nortasuna ez baitago geneetan —diskurtso hori aspalditik dago gaudituta mundu akademikoan—. Aitzitik, gizakiok *ikasi* egiten dugu alemaniarrek, kolonbiarrak edo txinatarrak izaten, idazten eta irakurtzen ikasten dugun bezalaxe. Ildo horretan, berebiziko garrantzia du haurtzaroko eta nerabegaroko sozializazioak, bereziki derrigorrezko hezkuntzan gertatzen den «alfabetatze nazionalak», Daniel Tröhler-en (2020) hitzetan.

Artikulu honen jatorria master-amaierako lan bat da, Ekain Rojoren tutoretzapean garatutakoa eta UPV/EHUko Subiranotasuna Europako Herrietan Masterra eskuratzeko defendatutakoa 2022an. MAL horrek xede zuen eskala ezberdinetako lurralde-identitateen erreprodukzioa ikertzea Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeek gaur egun erabiltzen dituzten testuliburuetan. Hemen, baina, alde batera utziko ditugu nazioz gaindiko nortasunak (europeismoa eta kosmopolitismoa), nazio-nortasunen erreprodukzioan zentratzeko. Konkretuki, nazioaren gaineko ikuspegi konstrukzionista batetik abiatuta, eta Michael Billig-en (1995) nazionalismo hutsalaren tesian oinarrituta, eduki-analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu ditut Lehen Hezkuntzako 6. mailako hiru testuliburu aztertzeko, Gizarte Zientzietakoak eta Santillana-Zubia, Ikaselkar eta Anaya-Haritz argitaletxeetakoak.

2. Nazio-identitatea eta derrigorrezko hezkuntza

Nazionalismo-ikerketetako autore garrantzitsuenek hezkuntzaz diotena ezagutze-ko, orain dela bi mende esandako hitz batzuetara jo beharra dago. Izan ere, Johann Gottlieb Fichte (1984) primordialistak zioen soilik hezkuntzak salba zezakeela nazio alemaniarra. Haren ustez, hezkuntza zen modurik eraginkorrena frantziarren zapalkuntzatik askatu eta aberriarekiko maitasuna transmititzeko. Harrezkerotik, nahiz eta modernistak izan diren hezkuntzaren funtzio nazionalizatzailea gehien azpimarratu dutenak (Tröhler eta Maricic, 2023), paradigma ezberdinetako adituak ados egon dira historikoki hezkuntza-sistema zentralizatuak ezinbestekoak izan direla nazio-hizkuntza eta kulturak zabaltzeko (Smith, 1991; Gellner, 2009), hezkuntza-pelegrinajeak bultzatzeko (Anderson, 2006) edota ikasleekin erritual nazionalistak praktikatzeko eguneroko bizitzan (Billig, 1995) nahiz ezohiko ospakizun-egunetan (Elgenius, 2011; hemen aipatuta: Tröhler eta Maricic, 2023).

1. Argitalpen honen egilea UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio-deialdiaren onuraduna da (PIF 2022). Gainera, lan honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza ere jaso du (IT-1438-22).

Nazio-kulturaren irakaskuntzaren aldetik, Anderson-ek (2006) garrantzi berezia ematen die Geografiari eta Historiari. Geografiaren aldetik, naziokideek nazioari dagokion lurraldea modu bisualean imajinatu ahal izateko, «mapa» deritzegun gizarte-erakuntza horien rola funtsezkoa da (Pickles, 2004; hemen aipatuta: Culcasi, 2010). Winichakul-ek (1988; hemen aipatuta: Anderson, 2006) «logoizazio»aren kontzeptua erabiltzen du erreferentzia egiteko mapa bat bere testuinguru geografikotik atera eta puzzle baten pieza bat balitz bezala irudikatzeari. Historiari bagagozkio, Anderson-en (*ibid.*) arabera, XIX. mendearen amaieran historia nazionalki definitzen zuen kontzientzia historiografikoa zabaldu zen, eta nazioaren genealogiaren inguruko kontaketa testuliburueta eta ikastetxeetara heldu zen. Sarritan, historiaren ikuspegi nazional horrek iraganeko gertakari tragikoak ahanzi edota distorsionatu egiten ditu.

Nolanahi ere, Tröhler eta Maricic-en (2023) arabera, nazionalismoari buruzko teoriarari handietako inork ez zion oinarri enpirikorik eman estatuek eskolak nazionalismoa transmititzeko sortu zituztelako ideari, eta kritika hori onartu egin du Billig-ek (2023a) berak orain dela gutxi. Horregatik, azkenengo urteetan ugaritu egin dira derrigorrezko hezkuntzaren eta naziokidetzaren sentimenduen arteko harremanari buruzko ikerlanak, hezkuntza-sistemaren elementu ezberdinak izan dituztenak aztergai: erregimen pedagogikoa (adibidez, Parra eta Segarra, 2018); ikastetxeetako «objektu nazional ikusgarri»-en paisaia, banderek, mapek eta bestelakoek osatutakoa (adibidez, Cohen, 2007); irakasleen iritziak eta agentzia (adibidez, Dewantara *et al.*, 2023); ikasleena (adibidez, Bahena Mendoza, 2015); hezkuntza-sistemari buruzko estatistiken erabilera (Horlacher *et al.*, 2023), etab.

Artikulu honetan, ordea, testuliburuak aztertzen ditugu, Gizarte Zientzietako testuliburuak hain zuzen ere. Arlo horretako irakasgaietako curriculum edota testuliburuari darian ideologia nazionalista soberan dago frogatuta hainbat herrialdetan, hala nola Txilen (Espinoza, 2020), Irlandan (Tormey, 2006), Galesen (Roberts, 2023), Bosnia-Herzegovinako Srpska Errepublikan (Bartulovic, 2006), Kurdistanen (Kirmanj, 2014), Indian, Pakistanen eta Bangladeshen (Rosser, 2003), etab. Ikerlan horietako emaitzetan antzekotasun argiak daude: oroimen selektibo edota distorsionatua; bestetasuna; biktimizazio kolektiboa eta norberaren irudi ona; kartografiaren erabilera, bidezkotzat jotako mugak islatzeko asmoz; paisaia eta arkitektura «nazional»-en agerpena; estaturik gabeko nazioen kasuan, homologazioa nazio-estaturen munduan, etab.

Ikerlan horietako batzuek kezka agertu dute hezkuntzaren erabilera nazionalistak sarritan dakarren bazterkeriaren aurrean, estatu askok luzaroan zokoratu baitute gutxiengo erlijioso edota etnolinguistikoen nortasuna (adibidez, Brown 2005; Kestere eta Stonkuvienne, 2023). Multikulturalismoa jorratzen duten zenbait teoriarik ere kezka bera agertu dute, eta adierazi dute orain arte indarrean egon den hezkuntza zibiko-nazionalak tokiko ezagutzak baliogabetu izan dituela historikoki (Williams, 2003). Beste kasu batzuetan, non nagusiki bi komunitate erlijioso edo linguistiko dauden, ohikoa da hizkuntza-eredu edo ikastetxe mota ezberdinek nortasun ezberdinak —eta, askotan, kontrajarriak— eragitea, hala nola Ipar Irlandan (Furey *et al.*, 2017) eta Ontarion (Wallner eta Chouinard, 2023). Kasu horietan, Tröhler-en

(2020) terminologia erabiliz, esan dezakegu lurralde berean «alfabetatze nazional» ezberdin eta paraleloak daudela.

Gaia Hego Euskal Herrira ekarrita, batetik, espainiar hezkuntza-politikek estatua eta nazioa bat etorraztea izan dute helburu historikoki (Zabaleta, 2008). Horretarako, gaztelania ez beste hizkuntzen zokoratzeaz gain, «*bat* zen herritar espainiar guztiek ikasi behar zuten historia eta *bat* ikasi behar zuten geografia» (Zabaleta, 2000, 81. or.). Bestetik, baina, euskal nazionalismoak ere hezkuntzaren funtzio nazionalizatailea bere alde erabili izan du; horren lekuko dira ikastolen mugimendua eta euskal curriculumaren aldarrikapena (Zabaleta, 2008). EAEn kasuan, D ereduaren sare publikora eta bestelako itunpeko ikastetxeetara hedatu bada ere, euskal curriculumak ez dago bermatuta. Gurutze Ezkurdiak (2008, 140. or.) honako hau ondorioztatu zuen, metodologia kuantitatiboaz 1876tik 2006ra arte ekoizitako 90 testuliburu aztertu eta gero: «Ez gaitezen engaina, testuliburuak euskaraz egoteak ez baitu bermatzen edukiaren testuinguratze soziokulturala». Hortaz, nahiz eta ikerlanen batek erakutsi hizkuntza-eredu ezberdinetako ikasleek nazio-nortasun ezberdinetara jotzen dutela (Apalategi, 2001), beste autore batzuk konbentziturik daude, eredu linguistikoa baino gehiago, ikastetxe mota dela erabakigarria nazio-identitatearen transmisioan, euskal curriculumak ikastolen berezitasuna izanik (Odriozola, 2021). Horixe izango litzateke 1990eko hamarkadako ikastolen publikazioak euskal nazionalismoaren sektore garrantzitsu batean eragin zuen urduritasunaren zergatia (sakontzeko: Mateos, 1999).

EAEn hezkuntza eta naziogintza ikertu duten azkenengo azterlanek 15 eta 25 urte arteko antzinakotasuna dute, eta azken urteotan aldaketa ugari egon dira. Lehenik, hezkuntzaren alorrean, estatu- zein autonomia-mailako hezkuntza-lege eta arau berriez gain, ikasleek hezkuntza-argitaletxearen agerpena da aldaketarik aipagarriena. Ikastolen Elkartearen eta Elkar argitaletxearen ekimenez sortu zen 2011n, euskal curriculumak ardatz dute testuliburuak ekoizti eta banatzeko asmoz. Bigarrenik, maila sozial eta politikoan, EAren desegitea eta haren ondorioak azpimarratzekoak dira. Eta hirugarrenik, nazionalismo hutsalaren tesia eta azken bi hamarkadetan nazionalismo-ikerketetan egondako bestelako ekarpen teorikoak ez ziren (hain) ezagunak Euskal Herrian orain dela hamabost urte. Jarraian azalduko dugu ikerlan honen marko teorikoa.

3. Nazionalismo hutsala, banala edo subliminala

Arestian aipatutako ikerlanetako batzuek ondorioztatu dute zenbait herrialdetan —batez ere Mendebaldean, baina ez bakarrik— hezkuntza-sistemako elementu ezberdinen diskurtso nazionalista hotzagoa, subliminalagoa, inkontzienteagoa edo *hutsalagoa* bilakatu dela azken hamarkadetan (adibidez, Tormey, 2006; Parra eta Segarra, 2018; Espinoza, 2020; Wallner eta Chouinard, 2023). Gauzak horrela, azterlan honen abiapuntua nazioaren ikuspegi modernista —konkretuki, konstrukzionista— izanik, Michael Billig-ek (1995) garatutako nazionalismo hutsal edo banalaren tesia da marko teorikoaren zutabe nagusia.

Paradigma modernistan kokatutako korrante konstrukzionistari jarraituta, nazioak imajinatutako komunitate politikoak dira (Anderson, 2006). Naziokideek

euren nazio-komunitatea imajina dezaten, beharrezkoa da asmatutako tradizio eta sinbolo nazional batzuk partekatzea: aberriaren egunak, kirol-ekitaldiak, banderak, ereserkiak, etab. Izan ere, horiek balio eta jokabide-arauen transmisioa bermatu ez ezik, iraganaren eta orainaren arteko lotura ere irudikatzen dute (Hobbsbawm eta Ranger, 1992)².

Hortik abiatuta, nazionalismo hutsalaren tesiaren arabera, nazio-kontzientzia ez da agertzen soilik modu erradikalizatuan edota ezohiko egoeretan. Nazio-krisialdi bat (adibidez, gerra bat) heltzen denerako, herritarrek badakite soberan zeintzuk diren euren aberriari dagozkion sinboloak. Nazio-krisialdiek ez badituzte nazioak ezerezetik sortzen, horrek esan nahi du egonkortasun-garaietan ere agerikoa ez den nazionalismo bat egon behar duela: alegia, *banal nationalism* delakoa³. Michael Billig (1995) gizarte-psikologo ingelesaren ustez, ezarritako nazio-estatueta, nazionalismoa oharkabean erreproduzitu ohi da; hots, nazionalismo hutsalak, erritual edo ohiko praktiken bidez, naziotasun bat naturalizatu eta etengabe gogorarazten du. Praktika horien ondorioz, populazio orokorrak naziokidetzasentimendu hori bereganatu egiten du eta modu horretan estatuak legitimitatea eskuratzen du (Hearn eta Antonsich, 2018), nazioaren kontzeptua baita estatua eta populazioa batzen dituena. Nazionalismo hutsala diskurtso politiko-instituzionaletan eta komunikabideetan antzeman dezakegu batez ere: erakunde publikoen eraikinetan jasotako banderak, albiste «nazional» eta «nazioarteko» albisteen arteko bereizketa, deixien («*gure* atletak», «herrialde *hau*», «*hemen*»), elipsien («*[britainiar]* lehen ministroa», «*[frantziar]* Errepublikak») eta eufemismoen⁴ erabilera («*gizarte* espainiarra»). Horri guztiari gehitu behar diogu nazio propioa irudikatzeke ezinbestekoa dela horrekin batera nazioez osatutako mundua ere irudikatzea: «The nation is always a nation in a world of nations» (Billig, 1995, 61. or.). Gainera, nazionalismo hutsalaren tesia osatu behar dugu arestian aipatutako mapen irakurketa konstrukzionistarekin.

Nolanahi ere, nazio-gatazkak bizi dituzten gizarteetan, antagonikotzat jotako nazio-kontzientziak egon ohi dira: kataluniarra eta espainiarra, eskoziarra eta britainiarra, etab. Kasu horietan, identitate horien transmisioa erabat *inkontzientea* izatea zailagoa izaten da, gatazkari buruzko kontzientzia soziala dela eta. Alabaina, horrek ez du esan nahi Euskal Herrian, Katalunian edota Ipar Irlandan nazionalismo subliminalik ez dagoenik; aitzitik, zenbait alorretan nazio-kontzientziaren transmisio

2. Desadostasunak desadostasun, Anthony D. Smith (1991, 16-17. or.) autore etnosinbolistak ere sinbologiaren garrantzia mahaigaineratzen du: «By the use of symbols - flags, coinage, anthems, uniforms, monuments and ceremonies - members are reminded of their common heritage and cultural kinship and feel strengthened and exalted by their sense of common identity and belonging».

3. Billig-i egin izan dizkioten kritiketako batek aukeratutako hitzarekin dauka zerikusia, «*banal*» —euskaraz, «hutsal»— emandako esanahia adierazteko aproposa ez delakoan eta nahasmena eragiten duelakoan (Jones eta Merriman, 2009). Nazionalismo hutsalaren tesiak forma diskurtsibo «subliminal»-ei egiten dienez erreferentzia (Hearn eta Antonsich, 2018, 594. or.), egokia iruditu zaigu «hutsal» eta «subliminal» terminoak tartekatzea, kontzeptua hobeto ulertarazte aldera.

4. Billig-ek (1995) agerian uzten du mundu akademikoan eta diskurtso politikoetan «gizarte» eta «nazio» hitzak baliokideak bihurtu direla, zeren lehen hitza erabiltzeko joera oso zabaldua baitago, betiere nazio-estatueta populazioei egiteko erreferentzia itxuraz nazionalista ez den terminologia erabiliz. Billig-ek berak egiten ez badu ere, ikerlan honetan «eufemismo» deituko diegu horrelako praktikei.

despolitizatuaren zantzuak ikus ditzakegu, betaurreko egokiak janzten baditugu⁵. Zenbait autorek frogatu dute posible dela nazionalismo hutsalaz hitz egitea estaturik gabeko nazioetan⁶ (adibidez, Crameri, 2000), baita *erregionalismo hutsalaz* ere, azken hori funtsezkoa izanik zenbait nazio-estaturen naziogintzarako (Archilés, 2018). Ildo horretan, kontuan hartu behar dugu lurralde-nortasun jakin batzuk *anbibalenteak* izan daitezkeela, modu erregionalistan edo modu nazionalistan irudika eta interpreta ditzakegulako (Flor, 2015).

Gure analisian, nazio-estatuari —hots, Espainiari— dagokion identitatearen erreproduzioaz gain, euskal nortasunarena ere aztertuko dugu, azken hori modu anbibalentean ulertuta; izan ere, modu erregionalistan/autonomistan edo modu nazionalistan irudika eta interpreta dezakegun identitatea da. Euskal literatura akademikoak komunikabideak (Bidegain *et al.*, 2021), kirol-ekitaldiak (Rojo, 2014) edota immigrazioari buruzko diskurtsoak (Iraola, 2015) aztertzeko erabili izan du nazionalismo hutsalaren tesia, eta hezkuntza alboratuta gelditu da. Horrenbestez, guk dakigunez, ikerlan hau lehenengo ikerlana da EAEko hezkuntza-sisteman aztertzen duena nazionalismo subliminala.

4. Ikerketaren diseinua eta metodologia

Helburu orokorra izanik nazio-nortasunen erreproduzioa ikertzea EAEko ikastetxeek gaur egun erabiltzen dituzten testuliburuetan, hauek dira azterlanaren helburu espezifikoak: (1) euskal eta espainiar identitateek testuliburuetan duten pisua neurtzea; (2) bi identitate horiek zer mekanismoren bitartez erreproduzitzen diren ikertzea; (3) euskararen lurraldeak irudikatzeko modua aztertzeta, euskal nortasunaren anbibalentziari arreta berezia emanez, eta (4) argitaletxeen artean antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea.

Testuliburuaren laginari dagokionez, Lehen Hezkuntzako 6. mailako testuliburuaren azken edizioak aztertu ditugu, Gizarte Zientzietakoak. Lehen Hezkuntzako azkenengo maila aukeratu da, maila horretan jada pixka bat konplexuak diren edukiak lantzen direlakoan. Gizarte Zientziak irakasgaiaren aukeraketak ez luke harrizkoa izan behar, arestian Geografiaren eta Historiaren tratamenduak daukan garrantzia azaldu egin baitugu. Hizkuntzari datxekiola, lagina euskarazko testuliburuera mugatu dugu, Lehen Hezkuntzako ikasle gehienek hizkuntza horretan ikasten baitute EAEn⁷. Gainera, euskarazko testuliburuak dira eskuragarrienak, Eibarren kokatutako EIMA Katalogoari esker⁸. Hautatutako argitaletxeei datxekiela, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ez duenez jasotzen ikastetxe bakoitzak zer argitaletxetako ikasmaterialak erabiltzen dituen ikasturte bakoitzean, ez dago datu zentralizaturik

5. Neronek galdetuta, Billig-ek berak erantzun zidan hitzaldi batean (2023b) haren ustean estaturik gabeko nazionalismoek ere «momentu hutsalak» izan ditzaketela.

6. Nazio-estatuaren nazionalismo hutsalak estatua legitiimatzen laguntzen baldin badu, esan dezakegu estaturik gabeko nazioenak subiranotasun- edo autonomia-maila handiagoa eskatzen duten *estatalitate subalternoak* legitiimatzen dituela, Jon Azkunereren (2018) hitzetan.

7. Eustat Euskal Estatistika Erakundearen (2023) arabera, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 78,57 zegoen D ereduaren matrikulatuta 2022-23 ikasturtean.

8. EIMA Katalogoa Euskarazko Ikasmaterialen Dokumentazio Zentroa da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari atxikita dagoena.

argialetxe ezberdinetako ikasmaterialen hedapenari buruz. *Opportunity sampling* eta *purposive sampling* laginketa-teknikak konbinatuz⁹, EIMA Katalogora bertaratu gara eta, eskuragarri zeuden bost argialetxeen artean, ordezkagarritasunaren eta ikuspegi aniztasunaren aldetik komenigarrienak iruditu zaizkigunak aukeratu ditugu: Santillana-Zubia (Basterretxea eta Etxebarria, 2020), Ikaselkar (Aldasoro eta Elkar-Ikastolak Zerbitzuak SL, 2017) eta Anaya-Haritz (Benítez, 2020)¹⁰. Horrela, estatu-mailako bi argialetxe —Santillana eta Anaya— eta tokiko argialetxe bat —Ikaselkar— daude laginean. Guztira, 549 orri aztertu ditugu.

Metodologiari datxekiola, eduki-analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu ditugu. Kuantitatiboki, zenbait adierazle neurtu ditugu, termino absolutu eta erlatiboetan: a) mapak eta antzeko lurralde-ikonoak¹¹; b) kronogramak; c) lurralde-eskala bakoitzari eskainitako orri kopurua, eta d) lurralde bakoitzaren aipamen kopurua gaien eta azpigaien izenburuetan. Adierazle horietatik eratorritako datuak lurralde-kategoria hauetan sailkatu ditugu: a) EAE/Euskadi/Euskal Herria; b) Espainia; c) Europa/Europar Batasuna, eta d) Mundua/Lurra/Gizakia¹². «Bestelakoak» eta «Zehaztugabea» kategoriak ere erabili ditugu adierazle batzuetan¹³. Kualitatiboki, nortasunen erreproduktzio-mekanismo hauei erreparatu diegu: a) hizkuntza-praktika banalizatzaileei (hau da, deixi, elipsi eta eufemismoei); b) sinbolo eta tradizioei; c) mapen erabilerari; d) nazioaren genealogiari buruzko kontaktari; e) bestetasunari, eta f) nazioen munduaren irudikapenari. Aldi berean, arreta berezia eskaini diegu euskal nortasunaren anibalentziari eta bi irizpide finkatu ditugu gure testuinguruan nazionalismo eta erregionalismo hutsalen arteko bereizketa egiteko: (a) irudikapenak euskal nortasunari esleitutako rola (zentraltasuna vs nazio-estatuarekiko subalternitatea), eta (b) lurraldetasuna (zazpi lurraldez osatutako Euskal Herria vs EAE).

9. *Opportunity sampling* eskuragarri dagoena aztertzean datza, eta *purposive* laginketan ikertzaileak berak aukeratzen du lagina irizpide batzuen arabera.

10. Zenbait ikastetxeren webguneetan begiratu dugu, baita zenbait irakasleri galdetu ere. Uste dugu Santillana-Zubia eta Anaya-Haritz eskola publiko eta kristau-eskoletan daudela zabaldua, batez ere eremu erdaldunetan. Ikaselkar, aldiz, ikastoletan legoke hedatuta (behintzat Ikastolen Elkartearen parte diren horietan), baita eremu euskaldunetako hainbat eskola publikotan eta zenbait ikastetxe erlijiosotan ere.

11. Antzeko lurralde-ikonotzat jo ditugu mapa baten itxura duten marrazkiak, hirietako planoak eta satelite batetik ateratako argazkiak, Lur planeta osoa edo lurralde zehatzen bat erakusten dutenak.

12. Sarreran esan bezala, artikulua honen oinarri den MALean lurralde-identitate guztiak ziren aztergai, analisi kuantitatiboan islatu bezala. Egokiagoa iruditu zaigu lurralde-kategoria denak mantentzea batzuk ezabatzea baino. Alabaina, analisi kualitatiboan nortasun espainiarrari eta euskal nortasunari helduko diegu soilik.

13. Mapa eta antzeko lurralde-ikonoen kasuan, sailkapena mapek indartzen duten nortasunaren arabera da, testuinguruari erreparatuta. Adibidez, Espainiako erliebea azaltzean, atal batek Balear Uharteren erliebea azaltzen badu, uharteren mapa batekin batera, mapa hori «Espainia» kategorian sartu da.

5. Ikerketaren emaitzak

5.1. Santillana-Zubia

5.1.1. Analisi kuantitatiboa

1. taula. Santillana-Zubia: datu kuantitatiboak.

	EAE/Euskadi/ Euskal Herria	Espainia	Europa/EB	Mundua/ Lurra/ Gizakia	Beste- lakoak	Zehaz- tugabea	Guztira
Mapak eta antzeko lurralde- ikonoak	7	13	12	7	2		41
Kronogra- mak	1	8	1	0		1	11
Orri kopurua	11	64	45	20			167
Aipamen kopurua izenbu- ruetan	8	11	17	2			86

Iturria: norberak egina.

Santillana-Zubiak komertzializatutako testuliburuaren 167 orriak aztertu eta gero, 1. taulan jaso ditugu lortutako datuak. Mapen, denbora-lerroen eta orrien sailkapenari bagagozkio, argi ikus dezakegu eduki gehienen erreferentziako markoa Espainia dela (13 lurralde-ikono, 8 kronograma eta 64 orri). Horrekin batera, Europa edota Europar Batasunarekin lotutako edukiek ere presentzia handia dute. Halaber, aldaketa klimatikoari buruzko edukiak dituzten orri batzuk «Mundua/Lurra/Gizakia» kategorian txertatu ditugu, 20 orritara helduz. Euskal lurraldeei buruzko edukiak, aldiz, oso eskasak dira: 7 lurralde-ikono, kronograma bakarra eta 11 orri liburu osoan.

Gaien eta azpigaien izenburietako aipamen kopurua da adierazle bakarra non Espainia ez den lehenengo postuan agertzen. Hori, baina, bat etor liteke arestian azaldutako forma diskurtsibo subliminalekin. Bestela esanda, horren arrazoia izan liteke liburuaren egileek «Espainia» hitza omititzen dutela ulertzen dutelako, ezer adierazi ezean, Espainia dela edukien erreferentziako markoa. Azterketa kualitatiboak, jarraian azalduko dugunak, konfirmatzen du hori dela arrazoia.

*. Mapen eta kronogramen kasuan datuen batuketa «Guztira» zutabearen agertzen den zenbakiarekin bat dator; orri kopuruaren eta aipamen kopuruaren kasuan, ez. Izan ere, mapen eta kronogramen lurralde zehatz bat islatu ohi duten bitartean, posible da orri batean lurralde bati baino gehiagori buruzko edukiek egotea, baita izenburu batean lurralde bat baino gehiago aipatzea ere. Aldi berean, orrialde askok ez dute lurralde jakin bati buruzko informaziorik jorratzen (hala nola ekonomia hiru sektoreak azaltzen dituzten orrialdeak), eta izenburu askok ez dute lurralderik aipatzen. Horrenbestez, orrialde eta izenburu batzuk bi kategoriatan sartu ditugu aldi berean, eta beste orrialde eta izenburu asko, aldiz, ez ditugu kategoriatan sartu. Hala ere, egokia iruditu zaigu taulan adieraztea liburuak guztira zenbat orrialde eta zenbat izenburu dauzkan.

5.1.2. *Analisi kualitatiboa: nazionalismo espainiarraren eta euskal subalternitatearen banalizazioa*

Analisi kualitatiboak analisi kuantitatiboaren emaitza berretsi egiten du, Santillana-Zubia argitaletxeak nazionalismo espainiarra banalizatzen baitu, eta, horrekin batera, euskal nortasun autonomikoa. Zenbait mekanismoren bitartez egiten du hori. Lehenik eta behin, hizkuntza-praktika banalizatzaileekin hasita, lehen pertsona plurala erabiltzen du liburuak modu puntualean, biztanleria espainiarrari erreferentzia egiteko: «Horrelakoak *ginen*, honelakoak *gara*. Zenbat aldatu *garen* 1978tik hona! Beste era batera janzten *gara*, tresna elektronikoko gehiago erabiltzen *ditugu*, eskubide gehiago *ditugu*...» (158. orrialdean).

Elipsiak ugariagoak dira, Espainia baita edukien erreferentziatzko markoa, besterik adierazi ezean. Adibidez, Geografiako edukietan (13. orrialdetik 32. orrialdera), izenburuek ez dute Espainia aipatzen Espainia erreferentziatzko markoa den azpigaietan: «(Espainiar) Uharteetako erliebea», «Nolako da (Espainiako) kostaldea?», «Nolakoak dira (Espainiako) urak?», «Nolakoak dira (Espainiako) klima eta landaredia?». Historiarekin lotutako edukietan gauza bera gertatzen da. Hala nola «XX. mendetik gaur egun arte» izenburu duen gaiak (143. orrialdetik 163. orrialdera) *Espainiaren XX. mendeko historia* jorratzen du nagusiki¹⁴.

Badaude eufemismoak ere. Liburuak nazio-estatuak aipatzeko batez ere «herrialde» terminoa erabiltzen badu ere, «gizarte» hitza ere erabiltzen du: «Espainiako *gizartea* nabarmen aldatu da azken hamarkadetan. [...] Pentsatu zuen *gizartean*. Zer gustatzen zaizue gehien *gizarte* horretaz?» (154. orrialdean). Arreta handiena erakartzen duen eufemismoak, baina, geografia fisikoarekin dauka zerikusia. Konkretuki, «Iberiar penintsulako erliebea» izenburu duen azpigaiak (14. eta 15. orrialdeetan) ez du Iberiar penintsula osoko erliebea azaltzen, Espainiakoa baizik. Hala islatzen da ikasleei aurkeztutako mapan ere, non Portugal grisez agertzen den, erliebeari buruzko inolako informaziorik gabe. Aldi berean, Iberiar penintsulan ez dauden lurralde espainiarrak koloreztatuta eta erliebeari buruzko informazioarekin agertzen dira. Espainia Iberiar penintsularekin nahastearen praktikak Espainiaren muga politikoen naturalizazioa dakar berekin.

Nabarmena da, liburuan zehar, Espainiaren irudikapen kartografikoa eta grisez koloreztatuta dauden inguruko lurraldeen alboraketa. Erliebeari buruzko mapaz gain, Espainiako kostaldeak bereizten dituen mapa ere oso adibide ona da (19. orrialdean). Izan ere, A Coruñatik Pontevedrara eta Cádizetik Huelvara doazen kostaldeak laranja koloreztatuta daude, Ozeano Atlantikoak bustitzen dituela adierazteko. Kontua da mapak ez duela esaten Portugalek zer motatako kostaldea daukan, ez dagoelako koloreztatuta (begiratu 1. irudiari). Portugalgo kostaldea ere laranja koloreztatu ordez, kostalde atlantikoa bitan zatituta irudikatzea hobetsi dute egileek, Espainiaren lurraldetasuna errespetatze aldera.

14. Gaian zehar, elipsiak identifikatzen ditugu: «(espainiar) Bigarren Errepublika», «(Espainiako) Gerra Zibila» edota «(espainiar) trantsizio demokratikoa». Gaur egungo erakunde eta lege komunei egindako erreferentzietan ere elipsiak identifikatzen dira: «1978ko (espainiar) Konstituzioa», «(Espainiako) Gobernuko presidentea», etab.



1. irudia. Santillana-Zubia: Espainiako kostalde atlantikoaren zatiketa.

19. orrialdeak Espainiako kostaldeen mapa hau eskaintzen du, Espainiako kostalde atlantikoa zatituta irudikatzen duena, haren lurraldetasuna errespetatze aldera.

Bigarrenik, nazio espainiarraren genealogiaren kontaketa ere agertzen da Historiako edukietan. «Hispania» izenaren lehenengo lekukotzetatik abiatuta, historiako aro guztiak labur-labur azaltzen ditu liburuak, horren ostean Aro Garaikidean zentratzeko. Azpimarratzekoak dira egileen ahaleginak Espainiak azken hamarkadetan izandako bilakaera eta homologazio demokratikoa modu baikorrean nabarmentzeko, integrazio-prozesu europarrarekin lotuz eta trantsizioari buruzko kontaketa hegemonikoarekin bat etorri: «Trantsizioan, Espainia diktadura bat izatetik demokrazia bat izatera igaro zen. [...] Gaur egun, Europar Batasuneko gainerako estatuen antzeko maila duen herrialde bat da Espainia: antzeko ongizate-maila eta antzeko arazoak eta erronkak ditu» (148. orrialdetik 154. orrialdera).

Espainiako —eta Europako— geografia eta historiari buruzko edukiak ugariak dira; euskal lurraldeei eskainitako orri kopurua, berriz, eskasa, analisi kuantitatiboan esan bezala. Euskal lurraldeei ez zaie gai bat ere eskaintzen; aitzitik, eduki eskas horiek beti Espainiari buruzko gaietan sartzen dira, modu osagarrian eta Espainiari buruzko eduki gehienak azaldu ostean. Bertan, euskal nortasuna erreproduzitzen da, baina betiere Espainiarekiko subalternitate-egoeran eta EAera edo «Euskadi»-ra mugatuta, liburuaren terminologiari jarraituta. Hasteko, nazionalismo espainiarrak lehen pertsona pluralaren, elipsien eta eufemismoen monopolioa duenez, EAeri buruzko edukietan ez da hizkuntza-praktika banalizatzailerik identifikatzen. Elipsi

falta nabarmena da izenburuetan ez ezik («*Euskadiko* erliebea», «Nolakoak dira *Euskadiko* urak eta klimak?», etab.), erakunde eta lege komun en aipamenean ere: «*Eusko* Jaurlaritz», «*Eusko Jaurlaritzaren* lehendakaria» (152. orrialdean).



2. irudia. Santillana-Zubia: «Euskadi», hiru lurraldez osatua mapetan.

27. orrialdeko isurialdeei buruzko mapa honek «Euskadi» erakusten du, Turtzioz, Trebiñu eta Nafarroa Garaia kanpoan uzten dituen eta Ipar Euskal Herria Frantziatzat jotzen duena.

Horretaz gain, Araba, Bizkai eta Gipuzkoaren genealogiaren inguruko kontaktetan distortsioak edota hutsuneak hautematen ditugu, helburu luketenak Espainiaren subalternitate eta egungo lurraldetasun autonomikoa zalantzan ez jartzea. Hain da espainiarra azalpenen ikuspegia, ezen, Aro Garaikideko kulturaz eta arteaz jardutean, ez den bereizketarik egiten euskal eta espainiar idazle edota artisten artean, denei tratamendu bera emanez: «Belaunaldi horretakoak (98koak) izan ziren Antonio Machado, Miguel Unamuno eta Pío Baroja» (137. orrialdea). Hori irakurri gero, ikasle askok ez dute jakingo Unamuno eta Baroja euskaldunak zirenik, denak espainiarzatzat jotzen baitira. Hori gutxi balitz bezala, Nafarroaren auziari ez ikusiarena egiten zaio, ez dira-eta zenbait datu historiko aipatzen: Nafarroako Erresumaren parte izan zirela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa; 1936ko Autonomia Estatutua hasieran lau lurraldeetarako aurreikusita zegoela; egungo legedian Nafarroako Foru Erkidegoak EAerekin bat egitearen aukera jasota dagoela, etab. Are gehiago, bi administrazio-eremuen arteko bereizketa berriaz azalera da 128. orrialdeko esaldi honetan: «Karlismoaren aldekoak batik bat *Euskadin* eta *Nafarroan* zeuden». Ildo horretan, esan gabe doa mapen bidez irudikatutako lurraldea EAerena dela (begiratu 2. irudiari). Irudikapen kartografiko horrek Nafarroako Foru Erkidegoa, Trebiñu eta Turtzioz baztertzen ditu —baita Errioxa, Gaztela eta León eta Kantabria

ere, jakina— eta Ipar Euskal Herria «Frantzia»tzat jotzen du, Espainiaren muga politikoak gogorarazteko.

Azkenik, hitz jakin batzuen erabilerak nahiko argi azaleratzen du edukien ikuspegia. Batetik, «nazionalismo» hitzak euskal nazionalismoari baino ez dio egiten erreferentzia liburu osoan zehar, nazionalismo espainiarrik ez balego bezala. Bestetik, «beste» eta «immigrazio» edo «immigrante» hitzak nagusiki beste kontinenteetatik datozen —eta azal zuria ez duten— pertsoneri erreferentzia egiteko erabiltzen dira. Adibidez, 154. orrialdeak, «*immigranteek* berekin ekarritako ohitura eta tradizioak» aipatzean, Ekialde Urruneko —ziur aski Txinako— emakume-talde baten argazkia erakusten du, jantzi tradizionalaz jantzita. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lehen industrializazioaz hitz egitean, ordea, ez da «immigrante» hitza erabiltzen; «langile» hitza hobesten da: «Espainiako leku askotatik milaka *langile* etorri ziren Euskadira».

Laburbilduz, Prisa taldeko argitaletxe honen ikasmaterialek nazio-kontzientzia espainiarra erreproduzitzen dute modu subliminalean, EAERA mugatzen den euskal erregionalismo edo autonomismo hutsalaz lagunduta.

5.2. Ikaselkar

5.2.1. Analisi kuantitatiboa

2. taula. Ikaselkar: datu kuantitatiboak.

	EAE/Euskadi/ Euskal Herria	Espainia	Europa/EB	Mundua/ Lurra/ Gizakia	Beste- lakoak	Zehaz- tugabea	Guztira
Mapak eta antzeko lurralde- ikonoak	6	0	0	23	7		36
Kronogra- mak	1	0	0	4		0	5
Orri kopurua	34	0	0	67			239
Aipamen kopurua izenbu- ruean	0	0	0	9			40

Iturria: norberak egina.

2. taulak Ikaselkarreko liburuaren azterketa kuantitatiboaren emaitza erakusten du. Eki proiektuko liburuak —edo, kasu honetan, hiru liburuxkek— Gizarte Zientzietako eta Natur Zientzietako edukiak tartekatzen dituzenez, Natur Zientzietako edukiak ere aztertu ditugu, eduki horiek baztertzea baino egokiagoa iruditzen baitzitzaigun ulertzea hiru liburuxkek osotasun bat osatzen dutela. Hala ere, ñabardura orokor bat egin beharra dago: Natur Zientzietako edukiak —lurren azaleratzea, eskala kronoestratigrafikoa, kontinenteen jitoen teoria, geosferaren geruzak, etab.— «Mundua/Lurra/Gizakia» kategoria neurri batean puztu egiten dute, eta distortsio

hori lau adierazle kuantitatiboetan islatzen da. Haatik, horrek ez du esan nahi, inondik inora ere, Natur Zientzietako gaietan euskal lurraldeei dagozkien edukiak identifikatu ez ditugunik. Kategoria horretan sartu ditugu, adibidez, Euskal Herriko lurren azaleratzeari edo lurpeko urek Euskal Herrian sortutako haitzuloei buruzko edukiak.

Datuek argi uzten dute zein den gehienetan agertzen den erreferentziazko markoa: mundua, gizakia edo Lur planeta. Hori esanda, Euskal Herriaren irudikapena ere aurki dezakegu mapen % 17an (36tik 6tan) eta kronogramen % 20an (5etik batean), eta lurralde-kategoria horretan sartutako orrien kopurua ez da eskasa (34 orri). Izenburuetako aipamen guztiak munduari, gizakiari edo Lurrari buruzkoak dira, baina kontuan hartu beharra dago bederatzi aipamen horietatik lau Natur Zientzietako edukiekin erlazionatuta daudela. Bestalde, «Bestelakoak» kategorian sailkatu ditugu Antzinaroko zibilizazioen lurraldeak erakusten dituzten mapak, eta ez dugu aurkitu edukirik Espainiari edo Iberiar penintsulari buruz, ezta Europa edo EBri buruz ere.

5.2.2. *Analisi kualitatiboa: Euskal Herriaren homologazioa nazioen munduan*

Berriro ere, analisi kualitatiboak berretsi egiten ditu analisi kuantitatiboaren emaitzak. Izan ere, bistan da Ikaselkarrek erabateko ezerezean uzten duela identitate espainiarraren erreprodukzioa. Hiru liburuxketan zehar Espainiaren aipamen bat bera ere ez dagoenez, atzerritar batek ziurrenik ez luke jakingo zer estatukoak diren Eki proiektuko liburuxka horiek erabiltzen dituzten ikasleak. Europa edo EBri buruzko edukirik ere ez dagoenez, bi dira naturalizatutako erreferentziazko markoak: Euskal Herriarena eta nazioartekoa, euskal nortasuna modu nazionalistan islatuta dagoelarik. Nolanahi ere, ñabardura bat egin beharra dago edukien egiturari dagokionez. Gai batzuek Euskal Herriko ikuspegia eta beste gai batzuek nazioarteko ikuspegia landu beharrean, Eki proiektuak gai guztietan tartekatuta edota uztartzen ditu bi ikuspegiok, euskal nortasuna zuzenean munduarekin konektatuz, tarteko eskalarik —hots, inorekiko subalternitatek— gabe.

Euskal nortasunari erreparatuta, Euskal Herria ikasleen ingurune hurbiltzat jotzen dituzten deixiak daude: «Kanpo-eragileek itxuratutako paisaia edo erliebeak ikusteko aukera ugari dago *Euskal Herrian*. [...] Inguratzen *gaituen* paisaia gehienetan nabari da urak eragindako higadura: itsaslabarretan, mendietan, ibaien ibilgailuetan...» (1. liburuxkaren 68. orrialdea); «Pape Ibnou mutikoa ere hegazkinez *etorri zen Euskal Herrira*» (2. liburuxkaren 56. orrialdea). Gai bakoitzean nazioarteko eta euskal ikuspegiak tartekatuta daudenez, Euskal Herriari buruzko azalpenak ematean, Euskal Herria berriaz aipatu ohi dute egileek; beraz, ez dugu elipsien erabilera sistematikorik antzematen, salbuespenak salbuespen. Lurraldetasunari dagokionez, «Euskal Herria» formula erabiltzen da sistematikoki euskararen zazpi lurraldeen multzoa izendatzeko. Lurraldetasun hori mapetan ez ezik, ikasleen ingurune hurbilak eskaintzen dituen adibideen hautaketan ere errespetatzen da. Hala nola lurpeko urek sortzen dituzten haitzuloetako paisaien artean, hauek aipatzen dira: «Mendukilo Nafarroan, Arrikruz Gipuzkoan, Pozalagua Bizkaian, Mairulegorreta Araban eta Otsozelaiko eta Sarako haitzuloak Ipar Euskal Herrian» (1. liburuxkako 68. orrialdea).

2 Beste irudi hauetan adierazten da nola azaleratu zen Euskal Herria.

EUSKAL HERRIKO LURREN AZALERATZEA

LURRA
URRA

Duela 220 milioi urte Duela 120 milioi urte Duela 40 milioi urte Duela 15 milioi urte


HARA!
ZUMAIAKO
FLYSCHA ERE
GARAI HORRETAN
ATERAKO ZEN BA
ITSASOTIK!

a) Zer iruditan agertzen da itsaso gehien?
b) Eta gutxien?
c) Lau irudietatik zeinek adierazten du antzina Euskal Herria itsaspean zegoela?
d) Orain dela zenbat urte gertatu zen hori?
e) Koka itzazu irudietako datak denbora-lerroan.

3. irudia. Ikaselar: Euskal Herriaren mugak, uretan marraztuta.

Lehenengo liburuxkako 15. orrialdeak, egungo Euskal Herriko lurren azaleratzea azaltzean, Euskal Herriaren mugak uretan marrazten ditu, haien existentzia gizadia baino antzinagoa dela aditzera emanez.

Gainera, Euskal Herriaren genealogia eta maparen logoizazioa batera doaz. Batetik, 3. liburuxkaren 21. orrialdeak, ikasleak Historiaurreari buruzko edukiak ikasten ari direla, euren barnean margolanak dituzten kobazuloen kokapena adierazten du Euskal Herriko mapa batean. Jakina, nekez hitz egin dezakegu euskal «nazio» edo «herri» batez Historiaurrean eta, euskaldunon arbasoek hitz egin ahal izatekotan, gauza ziurra da Euskal Herriaren egungo mugak ez zirela existitzen garai hartan. Hala eta guztiz ere, mapa horrek, Euskal Herriaren existentzia aurrehistorikoa dela iradokitzeaz gain, egungo mugak ere Historiaurrean proiektatzen ditu, Petilla Aragoiko eta Jeztazeko enklabeak barne. Modu horretan, Euskal Herria bere testuinguru geografikotik aterata erakusten du, puzzle baten pieza bat balitz bezala (begiratu 3. irudiari). Bestetik, 1. liburuxkaren 15. orrialdea harago doa. Izan ere, Euskal Herriko lurren azaleratze progresiboa erakusten du lau maparen bitartez, eta mapa bakoitzak lur-eremu bakoitza noiz azaleratu zen adierazten du: duela 220 milioi urte, duela 120 milioi urte, duela 40 milioi urte eta duela 15 milioi urte. Artean lur gehienak azaleratu egin ez zirenean ere Euskal Herriaren muga garaikideak *uretan* marraztuta agertzeak aditzera ematen du Euskal Herria «ahistorikoa» edo, behintzat, gizadia bera baino antzinagoa dela.



4. irudia. Ikaslar: Euskal Herriaren eta Senegalen arteko konparaketa.
2. liburuxkako 19. orrialdeak Euskal Herria nazioen munduan homologatzen du, Senegalekin konparatuz.

Edozein kasutan, deigarriena da Ikaslarrek garrantzi handia ematen diola nazioz osatutako mundu-ikuskeraren —alegia, ideologia nazionalistaren nazioarteko dimentsioaren— erreproduktioari. Hortik abiatuta, nazio-estatuaren parean jarriz, Euskal Herria nazioen munduan homologatzen dute ikasmaterialek. Konkretuki, 2. liburuxkan, «Munduko biztanleria aztertzen» izenburu duen atal munduko biztanleria sailkatzeko erabiltzen duen irizpide nagusia nazio-(estatu) da, eta herrialdeak konparatzen ditu azalari, biztanleriari eta biztanle-dentsitateari dagokienez: Alemania eta Txina, Erresuma Batua eta Australia. Horren ostean, ikasleei Euskal Herria eta Senegal konparatzeko eskatzen zaie 19. orrialdean (begiratu 4. irudiari). Are gehiago, Euskal Herriaren eta Senegalen arteko konparaketa liburuxkan zehar errepikatzen da hortik aurrera, eta modu pertsonifikatuan ere irudikatzen da Janelle izeneko pertsonaia senegaldarraren bitartez. Modu horretan, ikasmaterialek pedagogia egiten dute herrialde garatu eta garapenerako bidean dauden herrialdeen arteko desparekotasun ekonomikoaren inguruan, eta euskalduntasun solidario baten alde egiten dute¹⁵.

Alabaina, nazio-homologazio horretan zailtasunak ere antzematen dira. Nazioen munduaren logikak nazio-estatuaren mundua erreproduzitzera jotzen duenez, munduko mapa gutxi batzuetan Euskal Herriak ez du berezko presentzia edota

15. «Elkartasuna, herrien samurtasuna» esamoldeak (2. liburuxkako 73. orrian) oso ondo islatzen du nazioen munduaren erreproduktioaren eta nazioarteko elkartasunaren arteko lotura. Alegia, esamoldeak aditzera ematen du, edo hala ulertzen dugu guk behintzat, *pertsonak* edo *klase sozialak* baino gehiago, *herriak* —hau da, *nazioak*— direla solidarioak.

daturik. Horrela, 2. liburuxkaren 38. orrialdeko munduko mapak nazio-estatuak zenbait kolorez koloreztatzen ditu, bizi-itxaropenaren arabera. Mapa horretan, Espainia eta Frantziaren artean Euskal Herria adierazita ez badago ere, ikasleei Euskal Herriaren kokapenaz eta bizi-itxaropenaz galdetzen zaie eta, bi estatuok itxaropen-maila bera dutenez (80-89 urte), ikasleek suposa dezakete Euskal Herria ere tarte horretan dagoela kokatuta. Hala ere, berezko kolore eta daturik ez egoteak —Euskal Herriari buruzko datu faltaren aurreko etsipenak edo hautu pedagogiko batek eraginda— ikasleei Euskal Herriaren subalternitate-egoera gogorarazten die.

Hitz batean, Ikastolen Elkarteak eta Elkarrek sortutako hezkuntza-argitaletxearen liburu honek euskal nazionalismoa naturalizatu edo banalizatzen du. Zailtasunak zailtasun, Euskal Herria nazioen munduarekin konektatzen du zuzenean, nazio-estatu espainiarrari ez ikusiarena eginez eta Euskal Herria gainontzeko nazio-estatuaren parean irudikatuz.

5.3. Anaya-Haritzza

5.3.1. Analisi kuantitatiboa

3. taula. Anaya-Haritzza: datu kuantitatiboak.

	EAE/Euskadi/ Euskal Herria	Espainia	Europa/EB	Mundua/ Lurra/ Gizakia	Beste- lakoak	Zehaz- tugabea	Guztira
Mapak eta antzeko lurralde- ikonoak	4	30	12	6	1		53
Kronogra- mak	0	0	0	0		0	0
Orri kopurua	18	70	22	11			143
Aipamen kopurua izenbu- ruetan	7	10	8	2			57

Iturria: norberak egina.

3. taulak Anaya-Haritzako liburuaren analisi kuantitatiboak emandako datuak erakusten ditu. Liburu osoan ez dagoenez kronograma bakar bat ere, mapak, orriak eta izenburuak baino ez ditugu sailkatu. Lehenik, Espainia gailentzen da hiru adierazleetan, 30 mapa, 70 orri eta 10 aipamenekin. Bigarrenik, Europa/EB legoke bigarren postuan, 12 mapa, 22 orri eta 8 aipamenekin. Hirugarrenik, EAE ia-ia Europa/EBren parean dago orrien eta aipamenen kopuruan, nahiz eta diferentzia handiagoa izan lurralde-ikonoetan. «Mundua/Lurra/Gizakia» kategoriari datxekiola (11 orri eta 2 aipamen), kategoria horretan sartu ditugu giza jarduerak ingurumenaren duten eragina, kontsumo arduratsua, planetako urak edota globalizazioa eta komunikabideen bilakaera lantzen dituzten orriak, baita arte- eta kultura-mugimenduei buruzko eduki batzuk ere.

5.3.2. *Analisi kualitatiboa: «Espainiako estatu»aren eta euskal gutasunaren artean*

Azpiatalaren izenburuak iradokitzen duen bezalaxe, Anaya-Haritza aurreko bi argitaletxeen arteko erdibidean legoke. Batetik, nazio-identitate espainiarra naturalizatzen du, baina Santillana-Zubia baino neurri txikiagoan. Bestetik, euskal nortasuna sendotasunez erreproduzitzen du, baina betiere modu autonomistan.

Identitate espainiarrari datxekiola, «Espainiako estatua» formula juridikoa erabiltzen du sistematikoki, eta ez «Espainia». Adibidez, 11. orrialdean, honako hau irakur dezakegu: «Zer kontinentetan dago Espainiako estatua? [...] Zer lurraldek eratzen dute Espainiako estatua?». Ezaguna denez, besteak beste euskal nazionalismoak erabili izan duen espresioa da, Espainiaren nazio-proiektua naturalizatua izatea eragozteko asmoz. Ez dirudi kasualitate hutsa denik, «Frantziako estatuak» ere —euskal nazionalismoaren beste arerioak, hain zuzen— horrelako izendapena jasotzen baitu, gainontzeko nazio-estatuak ez bezala: «Zer ibaik egiten dute muga fisikoa *Portugalen* eta *Espainiako estatuaren* artean? Eta *Espainiako* eta *Frantziako estatuaren* artean?». Hau da, Portugal «Portugal» besterik ez da, baina Espainia eta Frantzia «Espainiako estatua» eta «Frantziako estatua» dira, hurrenez hurren. Era berean, deixi falta nabarmena da, kasu honetan lehenengo pertsona plurala ez dagoelako Espainiarekin lotuta, EAerekin baizik: «*gure* kostaldea» (20. orrialdea), «*gure* itsaslabarren forma» (20-21. orrialdeak), «abesti eta dantza tipiko asko *ditugu*» (126. orrialdea).

Alabaina, hautu horiek gainazalekoak ematen dute, ez baitatuz bat testuliburuaren edukiekin. Azken batean, Espainia da eduki gehien erreferentziatzeko markoa eta, beraz, analisi sozial eta historiko arrazionalerako marko naturala balitz bezala aurkezten du liburuak. Horretaz gain, bestelako hizkuntza-praktika banalizatzaileak identifikatu dira. Batetik, elipsiak erabiltzen dira gai juridiko-politikoei, kulturari zein erliebeari buruzko edukietan: «(espainiar) herritarrak» (105. orrialdea), «zer ekarri zuen (Espainia) EBra sartzekak» (122. orrialdea), «(espainiar) Artxipelagoen erliebea» (18. orrialdea), etab. Bestetik, Espainia Iberiar penintsulari buruzko erreferentziez naturalizatzen da berriro ere, sarritan «iberiar» eta «espainiar» hitzak isilean gordez. Esaterako, 16-17. orrialdeetako azpigaiak «Penintsulako kostaren erliebea» du izenburu, baina berez *Espainia penintsularreko* kostaren erliebeaz ari da, Portugal grisez agertzen baita, Espainiako maparen logoizazioan lagunduz.

Genealogiari bagagozkio, Santillana-Zubiak egiten duen bezalaxe, Anaya-Haritzak ere erlazionatzen du trantsizioa «demokraziaren iritsiera»rekin. Gainera, «erreformisten» eta «apurketazaleen» arteko *kontsentsuaren* balioa azpimarratzen du, espainiar demokraziaren elementu fundatzailea litzatekeena: «Zertan datza kontsentsuaren ideia trantsizio garaian? Uste duzu kontsentsua baliogarria dela beste egoera batzuetan?» (104. orria).

EAeri buruzko edukiak kuantitatiboki eskasak izanda ere¹⁶, euskal nortasuna irmotasunez erreproduzitzen da bertan, betiere modu autonomistan. Alde batetik, aipatu bezala, lehenengo pertsona pluralak EAeri egiten dio erreferentzia. Halaber,

16. Santillana-Zubian bezala, eduki horiek Espainiari buruzko gaietan kokatuta daude, modu osagarrian.

«Nor da nor» ataletan, non ikasleek pertsonaia historikoak landu ditzaketen, nabarmentzekoa da euskal «kuota» bat dagoela, Sabino Arana (90-91. orrialdeak), Dolores Ibarruri (110-111. orrialdeak) eta bestelako euskal pertsonaia historikoen ibilbidea azaltzen baitu liburuak. Are gehiago, 126. orrialdeak euskal tradizioak jorratzen ditu: kirolak (esku-pilota, zesta-punta eta herri-kirolak); artisautza-lanak, abesti eta dantza tipikoak (esaterako, aurrekua); gastronomia (marmitakoa, bakailaoa pil-pil saltsan, Idiazabalgo gazta, txakolina, etab.), eta jaiak (Bilboko Aste Nagusia, Tolosako inauteriak, etab.).



Gastronomia, nabarmentzekoak dira arrainarekin egiten diren plater eta gisatuak: marmitakoa, bakailaoa pil-pilean, bisigua, legatza edo hegaluzea. Baina baita bestelako batzuk ere: porrusalda; perretxiko nahaskia; idi txuletoa. Eta postreetan, Idiazabalgo gazta, euskal pastela edo gatzatua. Edarietan, aipatzekoak dira, txakolina eta sagardoa.

5. irudia. Anaya-Haritza: euskal gastronomiari buruzko testua.

126. orrialdean euskal tradizioez mintzo da Anaya-Haritzako testuliburua, haien artean euskal gastronomia.

Bestetik, eduki horietan oso zaila da elipsirik aurkitzea, eta Espainiaren subalternitatea zalantzan jartzen ez duten formulak hobetsiak dira sistematikoki: «gure lurren alde» (88. orrialdea), «gure erkidegoa» (43. orrialdea), «gure eskualdea» (89. orrialdea) edo «gure lurra» (127. orrialdea)¹⁷. Genealogiari bagagozkio, nabarmena da euskal lurraldeen historiari buruzko oroimen selektiboa. Izan ere, Frantziako Iraultzaren garaian, Frantziak Gipuzkoa anexionatzeko asmoa zuela aipatzen du, 1794ko abuztuan Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Getarian bilduta, Gipuzkoaren independentzia aldarrikatu zutela aipatu gabe. Horretaz gain, espainiar Konstituzioari buruzko erreferendumean botoa eman zutenen % 87,78k alde bozkatu zuela dio 98. orrialdeak, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban abstentzioak izan zuen arrakasta aipatu gabe. Lurraldetasunari erreparatuz, inkoherentzia edo salbuespen txikiren bat kenduta¹⁸, Anaya-Haritza Bizkaia, Gipuzkoak eta Arabak


17. Salbuespen bakarra 126. orrialdekoa litzateke, non «gure herria» formula erabiltzen den.

18. Euskal jaien adibideen artean, liburuak ez ditu aipatzen ez sanferminak, ez Baionako bestak. Orrialde horretan bertan (126.ean), «euskal pastela» aipatzen du euskal gastronomiaren adibide gisa, euskal pastelak bere jatorria Lapurdin duela ahoz.

osatutako «Euskal Autonomia Erkidego»ra¹⁹ mugatzen da eta, autonomia-estatutuak azaltzean, Nafarroaren auziari ez ikusiarena egiten dio. Jakina, hiru lurraldeen irudikapen hori kartografikoa ere bada.

Hitz gutxitan esanda, Anaya-Haritzaren ikasmaterialek inkoherentzia-maila handiena dute hiruren artean. Nolanahi ere, gainazaleko hautu batzuk gorabehera, liburuak nazio-identitate espainiarra erreproduzitzen du; hor kokatzen du erreferentziazko marko nagusia. Horrekin batera, euskal gutasuna ere sendotasunez transmititzen da, betiere modu autonomistan.

5.4. Emaitzen laburpena eta argitaletxeen arteko konparaketa




1. grafikoa. Hiru argitaletxeen arteko konparaketa, mapen eta antzeko lurralde-ikonoen arabera. Iturria: norberak egina.

Santillana-Zubiak europeismoari pisu handiagoa ematen badio ere bere edukietan, analisi kuantitatiboak (begiratu 1. eta 2. grafikoei) nahiz kualitatiboak (begiratu 4. taulari) azaleratzen dute estatu-mailako bi argitaletxeek antz handiagoa dutela euren artean Ikaselkarrekin baino. Azken finean, biek ala biek ematen diote zentraltasuna nazio-identitate espainiarrari. Ikaselkarren Eki proiektuko liburuxkek, aldiz, Espainia eta Europa/EB guztiz alboratzen dituzte; horren ordez, Euskal Herriak, (nazioen) munduak eta haien arteko loturak hartzen dute zentraltasuna.

Hori esanda, ñabardurak egite aldera, Santillana-Zubia mutur batean legoke kokatuta: nazio-identitate espainiarra naturalizatzen du, euskalduntasunaren —bertsio autonomistaren— erreprodukzioa nahiko ahul geratzen delarik. Erdibidean, Anaya-Haritzan hautu kontzientek hautematen ditugu, helburu luketenak

19. Izendapen juridiko —eta, hortaz, ez hain naturalizatzaile— hori erabiltzeko joera badago ere, kasu gutxi batzuetan, bestelako terminoak ere erabiltzen dituzte ikasmaterialek, betiere aipatutako hiru lurraldeoi erreferentzia egiteko: «Euskal Herria» (88. eta 109. orrialdeetan, adibidez) eta «Euskadi» (110. orrialdean). Halaber, «euskal» adjektiboa «EAETar»en baliokidea balitz bezala agertzen da: «euskal herritarrak» (70. orrialdean), «euskal industria» (109. orrialdean), etab.

espainiartasunaren naturalizazioa ekiditea edo epeltzea eta euskalduntasuna modu sendoagoan —baina betiere modu subalternoan— erreproduzitzea. Hala ere, hautu horiek gainazalekoak dira, «Espainiako estatua» ere banalizatua izan daiteke-eta, hura irudikatzen bada analisi sozial eta historikorako erreferentziatzko marko arrazionalena balitz bezala. Beste muturrean, Ikaselkarrek euskal nazio-kontzientzia erreproduzitzen du, zazpi lurraldez osatutako Euskal Herria irudikatuz nazio-estatuen parean.



2. grafikoa. Hiru argialetxeen arteko konparaketa, lurralde-eskala bakoitzari eskainitako orri kopuruaren arabera. Iturria: norberak egina.

4. taula. Hiru argialetxeen arteko konparaketa kualitatiboaren laburpena.

ARGIALETXEAK / NORTASUNAK	SANTILLANA-ZUBIA	IKASELKAR	ANAYA-HARITZA
NORTASUN ESPAINIARRA	Banalizazio-maila altua: lehen pertsona pluralaren erabilera puntuala, elipsien erabilera sistematikoa, Iberiar penintsularekiko nahasketa eufemistikoa, etab.	Ez da erreproduzitzen. Entzungor egiten zaio nazio-estatuari.	Banalizazio-maila altua, nahiz eta gainazaleko hautu batzuk banalizazio hori epeltzera bideratuta egon («Espainiako estatua»).
EUSKAL NORTASUNA	Espainiarekiko modu subalternoan erreproduzitzen da, EAERA mugatuta eta modu erregionalistan.	Banalizazio-maila altua. Euskal nortasunaren bertsio nazionalista erreproduzitzen da, Euskal Herria nazio-estatuen parean jarriz.	Erreproduzizio-maila sendoa (lehen pertsona plurala, tradizioen azalpena, etab.), baina betiere EAERA mugatuta eta modu erregionalistan.

6. Ondorioak

Ikerketa honetan gauzatutako azterketa kuantitatibo eta kualitatiboen emaitzak ikusita, zenbait ondorio atera ditzakegu. Lehenik eta behin, EAEko —batez ere eremu erdaldunetako— ikastetxe publiko eta kristau-eskola ugaritan, Santillana-Zubia edo Anaya-Haritza argitaletxeen ikasmaterialek erabiltzen dituzten horietan hain zuzen, *testuliburuak nazio-kontzientzia espainiarra transmititzen dute modu subliminalean*. Are gehiago, azken hamarkadetan euskara euskal nazionalismoaren sinboloa izan denez (eta euskarazko irakaskuntza euskal nazionalismoaren aldarrikapen edo lorpenetako bat), paradoxikoa suerta daiteke, baina EAEn kasuan espainiartasunaren irakaskuntza *euskaraz* ematen da nagusiki —beharbada, derrigorrezko hezkuntza da arlo bakarra edo bakarretakoa, non euskarak espainiartasuna erreproduzitzeko balio duen—. Horrenbestez, *D ereduak ez du euskal nazionalismoaren koordenatuetan funtzionatzen*, ez behintzat Gizarte Zientzien irakaskuntzari dagokionez.

Bigarrenik, lehen ondorioak ez du esan nahi euskal nortasunak batere lekurik ez duenik testuliburu horietan. Alabaina, edukiak kuantitatiboki eskasak dira —Europa edo EBri buruzko edukiak baino eskasagoak— eta, ikuspuntu kualitatibotik, *erregionalismo* edo *autonomismo* hutsala baino ez dute islatzen, eta ez euskal nazionalismo hutsala. Subalternitatean eta lurraldetasun zurrun batean «harrapatutako» autonomismo hutsal horren ondorioz, ikasmaterialek alboratzen dituzte Euskal Herriaren errealitate zabalagoa —eta konplexuagoa— agerian utziko luketen gertakari edo datu historikoak, hiru lurraldez osatutako EAE edo «Euskadi» naturalizatzeko aldera. Gauzak horrela, ikasleek jasotzen duten ezagutzan hutsune edo distorsio argiak daude, haien ingurune soziokulturalaren aldetik. Hala nola euskal geografiari buruzko edukietan ez dira Pirinioak aipatzen, ezta Euskal Herriko mendirik garaiena ere: Hiru Erregeen Mahaia. Historiako edukietan, adibide batzuk aipatzearren, ez dira ikasten ez Gipuzkoako Batzar Nagusien independentzia-aldarrikapena 1794an, ez Hego Euskal Herrian abstentzioak izan zuen arrakasta 1978ko Konstituzioaren erreferendumean, ez Nafarroaren auzia XX. mendeko bi prozesu autonomikoetan, etab. Hutsune horiek ikusita, badirudi indarrean jarraitzen duela Gurutze Ezkurdiak (2008) orain dela hamabost urte idatzi zuenak: alegia, *ikasleek testuliburuak bidez ezagutzen duten errealitateak zerikusi handirik ez duela haien ingurune soziokultural hurbilarekin*, euskarazko testuliburuak izan arren.

Hirugarrenik, badago salbuespenik, euskal nazionalismoaren gakoetan funtzionatzen duenik: Ikaslekar argitaletxea, batez ere ikastolek eta eremu euskaldunetako hainbat eskola publikok erabiltzen dutena. Argitaletxeak euskal curriculumarekin duen konpromisoaren ondorioz, haren ikasmaterialean ez du funtzionatzen nazio-eraikuntza espainiarraren logikak, non *bat* den herritar espainiar guztiek ikasi behar duten historia eta *bat* ikasi behar duten geografia, Iñaki Zabaleta Imazen hitzetan (2000). Aitzitik, *Eki proiektuko liburuxketan, zazpi lurraldeetako Euskal Herriak jasotzen du arreta*. Euskal Herriari atxikitako naziokidetzasentimendua transmititzeko, argitaletxea nazioz osatutako mundu-ikuskeraren erreproduktzioaz baliatzen da batez ere, *Euskal Herria nazioen munduan homologatuz nazio-estatuaren parean*. Haurrak neurri handi batean subjektu apolitikoak izaten

diren heinean, euskal nazionalismo hutsalaz edo subliminalaz hitz egin dezakegu. Ziurrenik, euskal nazio-kontzientziaren transmisio hori ez da hain inkontzientea izango gurasoen, irakasleen edo testuliburuaren sortzaileen ikuspuntutik, baina hori baieztatzeko bestelako ikerketa bat beharko genuke.

Azkenik, hemen jarri nahi dut arreta bereziki: azterlan honek frogatzen du *Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek alfabetatze nazional paraleloak bizi dituztela derrigorrezko hezkuntzan*, segun zein ikastetxetara doazen eta zein testuliburu erabiltzen dituzten bertan. Lurralde batean, non bi nazio-kontzientzia dauden (euskalduna eta espainiarra), ikasmaterialek ez dute islatzen inolako hibridotasun identitariorik, ezta identitate-aniztasunaren eta bere jatorriaren inguruko pedagogiarik ere. Argialetxe bakoitzak nazio-nortasun bakarra erreproduzitzen du, eta bestea neurri batean edo bestean baztertu. Horrela, Ikaselkarrek entzungor egiten dio espainiartasunari, eta estatu-mailako argialetxeek bigarren edo hirugarren mailan lagatzen dute euskalduntasuna, betiere modu autonomistan ulertuta. Bakoitzak bereari eusten dionez, *nazionalismoen arteko lehiaren logika* gailentzen da. Logika horretan, nazionalismo bat dago «irabazten» ari dena, mesede egiten dioten testuliburuak oso hedatuta daudelako (espainiarra), eta beste nazionalismo bat Ikaselkar argialetxeari eusten diona —euskal nazionalismoa—. Ildo horretan, alfabetatze nazional paralelo horiek eragin dezakete *etorkizuneko herritar ugariaren begietara Espainiako estatua legitimatuta egotea eta, beste batzuek, aldiz, Euskal Herrian nazio-gatazka bat dagoela sentitzea* eta euskal nazionalismoaren aldarrikapenekin bat egitea. Gizarte-kohesioaren eta euskal politikaren bilakaeraren aldetik, ikusteke daude horren ondorioak, batez ere kontuan hartuta garaiak aldatu egin direla eta ETAk bere jarduera armatua eten zuela 2011n. Eusko Legebiltzarretik atera litekeen hezkuntza-lege berriaren harira, testuliburuaren eta alfabetatze nazionalaren afera kontuan hartzeko modukoa da, are gehiago estaturik gabeko nazio batean, non nazio-kontzientzia ezberdinak —eta, neurri batean, kontrajarriak— dauden.

Etorkizunera begira, egile honek ikerketa-lerro honetan sakonduko duenez bere doktore-tesirako (Ekain Rojoren eta Onintza Odriozolaren zuzendaritzapean hain zuzen), informazio gehiago eskuratzeko asmoa du argialetxe bakoitzaren hedapenaren inguruan, garrantzitsua baita modu zehatzagoan jakiteko zer ikasle —eta zenbat ikasle— dauden alfabetatze nazional bakoitzaren eraginpean. Halaber, doktore-tesian zehar, aukera egongo da liburuen lagina handitzeko eta liburuetatik —eta EAEtik— harago ere ikertzeko nazio-identitateen eta hezkuntzaren arteko harremanari buruz.

7. Erreferentziak

- Anderson, B. (2006). *Imagined Communities. Reflections on the Origin and Spread of Nationalism* (Berrikusitako ed.). Verso.
- Aldasoro, M., eta Elkar-Ikastolak Zerbitzuak S.L. (koord.) (2017). *Ingurunea. Gizarte eta Naturaren Zientziak. Lehen Hezkuntza 6*. Eki proiektua, Ikaselkar.
- Apalategi, J. (2001). *La idea de nación en los niños vascos. Adquisición y desarrollo del concepto de nación en la infancia. El sistema identitario*. Utriusque Vasconiae.

- Archilés, F. (2018). Capítulo 4. La nación narrada. La nación vivida. Nación y región como horizonte textual en *Arroz y tartana* (1894) de Vicente Blasco Ibáñez. In A. Quiroga eta F. Archilés (argtz.), *Ondear la nación: nacionalismo banal en España* (73-96. or.). Editorial Comares.
- Azkune, J. (2018). *Can the subaltern states speak? Estatuaren eraldaketa eta burujabetza eskaerak Katalunian, Euskal Herrian eta Eskozian* (Doktore-tesia). UPV/EHU.
- Bahena, I. (2015). Construcción de la identidad nacional en alumnos de educación secundaria del municipio de Nezahualcóyot. *Revista Mexicana de Investigación Educativa*, 20(64), 241-262.
- Bartulovic, A. (2006). Nationalism in the Classroom: Narratives of the war in Bosnia-Herzegovina (1992-1995) in the history textbooks of the Republic of Srpska. *Studies in Ethnicity and Nationalism*, 6(3), 51-72.
- Basterretxea, A., eta Etxebarria, L. (zuz.) (2020). *Gizarte Zientziak. Lehen Hezkuntza 6. Egiten jakin zurekin bilduma. Santillana-Zubia*.
- Benítez, J.K. (koord.) (2020). *Gizarte Zientziak. Lehen Hezkuntza 6. Piezaz pieza proiektua. Anaya-Haritz*.
- Bidegain, E., Larrañaga, A., eta Maguregi, Z. (2021). *Izan ala ez izen? Euskal Herriaren irudikapena euskal hedabideetan*. Martin Ugalde Kultur Parkea, Jakin eta Elkar.
- Billig, M. (1995). *Banal nationalism*. SAGE.
- Billig, M. (2023a). Concluding chapter. Education, nationalism and internationalism: gap-filling and gap-creating. In Daniel Tröhler (argtz.), *Education, curriculum and nation-building* (249-263. or.). Routledge.
- Billig, M. (2023b, apirilak 3). Banal nationalism and banal internationalism. *ASEN Conference 2023: Nationalism and Multiculturalism*.
- Brown, K.D. (2005). Estonian Schoolscapes and the Marginalization of Regional Identity in Education. *European Education*, 37(3), 78-89.
- Cohen, R. (2007). *The flag, the national symbol and the map: The establishment of an Israeli identity through visual national objects in the classroom* (Doktore-tesia). University of Bath.
- Crameri, K. (2000). *Banal Catalanism? National Identities*, 2(2), 145-157.
- Culcasi, K. (2010). *Geographical record. Constructing and naturalizing the Middle East. The Geographical Review*, 100(4), 583-597.
- Dewantara, J.A., Sulistyarni, Prasetyo, W.H., Efrani, Riyanti, D., Afandi eta Ulfah, M. (2023). *School teachers, national identity and an Indonesian-Malaysian border community: A case study in Entikong. Issues in Educational Research*, 33(2), 510-528.
- Espinoza, J.P. (2020). *Narrativas nacionales y la comunicación de la ideología del nacionalismo en textos escolares de historia de enseñanza secundaria de Chile* (Doktore-tesia). Universidad de Málaga.
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundea. (2023). *Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal AEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraiki. Datu-aurrerapena. 2022/23*. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0002400/ti_alumnado-matriculadoren-ensenanzas-de-regimen-general-no-universitarias-en-la-ca-de-euskadi-por-territorio-historico-y-nivel-de-ensenanza-segun-titularidad-del-centro-y-modelo-linguistico-avance-de-datos-202223/tbl0002427_e.html
- Ezkurdia, G. (2008). Euskal Herria gaiaren garapena XX. eta XXI. mendeetako testuliburuetan. *Ikastaria*, 16, 109-142.

- Fichte, J.G. (1984). *Discursos a la nación alemana* (Luis A. Acosta eta María Jesús Varela itzul.). Orbis.
- Flor, V. (2015). El regionalismo banal y la construcción de la identidad valenciana autonómica: una perspectiva desde la sociología histórica. In P. Folguera *et al.* (argtz.), *Pensar con la Historia desde el siglo XXI*. Actas del XII Congreso de la Asociación de Historia Contemporánea (3969-3990. or.) (2014ko iraila). UAM ediciones.
- Furey, A., Donnelly, C., Hughes, J. eta Blaylock, D. (2017). Interpretations of national identity in post-conflict Northern Ireland: A comparison of different school settings. *Research Papers in Education*, 32(2), 137-150.
- Gellner, E. (2009). *Nazioak eta nazionalismoak* (Juan Garzia Garmendia itzul.). Klasikoak.
- Hearn, J., eta Antonsich, M. (2018). Theoretical and methodological considerations for the study of banal and everyday nationalism. *Nations and Nationalism*, 24(3), 594-605.
- Hobbsbawm, E.J., eta Ranger, T.O. (1992). *The Invention of Tradition* (Canto ed.). Cambridge University Press.
- Horlacher, R., Alix, S.A., eta Hofmann, L.B. (2023). Chapter 3. Nation-building by education statistics and data. A comparative perspective on school surveys in Switzerland, France, and Scotland. In D. Tröhler (argtz.), *Education, curriculum and nation-building (55-76. or.)*. Routledge.
- Iraola, I. (2015). Nacionalismo banal y discurso sobre la inmigración. El caso vasco. In P. Folguera *et al.* (argtz.), *Pensar con la Historia desde el siglo XXI*. Actas del XII Congreso de la Asociación de Historia Contemporánea (4.073-4.090. or.) (2014ko iraila). UAM ediciones.
- Jones, R., eta Merriman, P. (2009). Hot, banal and everyday nationalism: Bilingual road signs in Wales. *Political Geography*, 28(3), 164-173.
- Kestere, I., eta Stonkuvieni, I. (2023). Chapter 8. Primers as a nation's self-portrait. The case of Latvia and Lithuania in the 1920s and 1930s. In D. Tröhler (argtz.), *Education, curriculum and nation-building (173-193. or.)*. Routledge.
- Kirmanj, S. (2014). Kurdish history textbooks: Building a nation-state within a nation-state. *Middle East Journal*, 68(3), 367-384.
- Mateos, T. (1999). *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza publikoa: ikastolen publikazioa* (Doktore tesia). UPV/EHU.
- Odriozola, J.M. (2021). Eskola eta nazionalismoa. *Berria*, urtarrilaren 20a. <https://www.berria.eus/paperekoa/1937/017/003/2021-01-20/eskola-eta-nazionalismoa.htm>
- Parra, D., eta Segarra, J.R. (2018). Capítulo 9. El aprendizaje de la nación en los regímenes pedagógicos de la España contemporánea. In A. Quiroga eta F. Archilés (argtz.), *Ondear la nación: nacionalismo banal en España (181-204. or.)*. Editorial Comares.
- Roberts, A.L. (2023). Exploring the discursive construction of national identity through the building of the new curriculum for Wales. *Wales Journal of Education*, 25(1), 38-61.
- Rosser, Y.C. (2003). *Curriculum as destiny: Forging national identity in India, Pakistan, and Bangladesh (Doktore-tesia)*. University of Texas.
- Rojo, E. (2014). *Futbola eta nazio eraikuntza Euskal Herrian eta Spainian*. Utriusque Vasconiae.
- Smith, A.D. (1991). *National identity*. Penguin Books.

- Tormey, R. (2006). The construction of national identity through primary school history: the Irish case. *British Journal of Sociology of Education*, 27(3), 311-324.
- Trohler, D. (2020). National literacies, or modern education and the art of fabricating national minds. *Journal of Curriculum Studies*, 52(5), 620-63.
- Tröhler, D. eta Maricic, V. (2023). Chapter 1. Education and the nation. Educational knowledge in the dominant theories of nationalism. In D. Tröhler (argtz.), *Education, curriculum and nation-building (7-33. or.)*. Routledge.
- Wallner, J., eta Chouinard, S. (2023). Chapter 7. Nation-building and curriculum in Canada. In D. Tröhler (argtz.), *Education, curriculum and nation-building (149-172. or.)*. Routledge.
- Williams, M.S. (2003). Chapter 8. Citizenship as identity, citizenship as shared fate, and the functions of multicultural education. In K. McDonough eta W. Feinberg (argtz.), *Citizenship and education in liberal-democratic societies: teaching for cosmopolitan values and collective identities*. Oxford University Press.
- Zabaleta, I. (2000). *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Zabaleta, I. (2008). Nazionalismoa eta Hezkuntza Euskal Herrian. *Ikastaria*, 16, 227-240.

